

## A. PROBINTZIALAREN GUTUNA

Adiskide agurgarri hori:

Atseginez aurkezten dizut, Loiolako Probintziaren Proiektuaren fase berri honetako lerro estrategikoak, helburuak eta proiektuak biltzen dituen dokumentu hau.

Gogoan izango dituzu behar bada, jesuitei eta erakundeetako lankideei 2005 urtearen hasieran aurkeztu genizkien, orduko Misioaren, Ikuspuntuaren eta Lerro Estrategikoen testuak, gure Probintzian orduantxe aurkeztu berria genuen Probintziako Proiektua. Testu hura, urtebete pasan, batera egindako diszernimenduaren eta analisisien fruitu izan zen, Probintziako instantzia ezberdinak zuzenean inplikatur.

Ordutik hona, izan dugu gure bidean, zeregin ugari, espiritu handia, zenbait hutsune, eta gure ahalbideak eta aukerak etengabe ezagutzen joateko zoria, Jaunaren deiari jarraitzea bilatur, gure inguruan.

Urteen eta 35. Kongregazio Orokorren esperientziarekin, Proiektua berritzeko planari ekin genion, 2008-2009 ikasturtean. Jesuiten komunitateen, obretako komunitate apostolikoen eta bereziki honetarako prestatu zen proiektuko batzordearen partaidetza eskuzabalagatik, pozik iritsi gara, atsegin handiz aurkezten dizuedan testu honetara.

Proiektuaren fase berri hau, gainera, komunitate, erakunde eta sektore gehienak plangintza apostolikoan eta haren ebaluazioan esperientzia gehiago hartzen ari diren unean etorri da. Denboran, berriz, Espainiako jesuita probintzien bat egiteko prozesuarekin batera etorri da. Gutako bakoitzak, bere mailan eta bere alorrean, dagokigun ekarpena egiten dugu, Jaunagandik datozela sentitzen ditugun deiak gehitu eta zehaztu nahirik, Ignazioren karismari jarraituz.

Eskertzen dut, Proiektu honetan izan duzun partaidetza, berari eskaini diozun denbora eta ahalegina, eta espero dut, elkarrekin jarraituko dugula sinesmenaren eta justiziaren zerbitzuan, inkulturazioaz eta elkarrizketaz baliatur. Lerro estrategiko, helburu eta proiektu hauek, jarrera espiritual batean, aukera aparta izango dira fruitu handiago eta hobeak emateko.

Adeitasunez,

A. Joan Jose Etxeberria S.J.

2009ko urriaren 31an  
San Alonso Rodriguezen jaiburua